

BI MILA ETA HEMERETZIKO APIRILAREN LAUAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2019ko apirilaren lauan, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Aintzane Enzunza Zorrozuza
Haizea bengoetxea Andikoetxea
Gartzen Agirregoitia Abad

Edoitz Bilbao Aurrek aurretiaz azaldu dau bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeke eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HEMERETZIKO URTARRILAREN ZAZPIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2019ko urtarrilaren zazpian egindako aparteko Bilkuraren aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

Angel M^a Acillona Martinezek eskatutako obra lizentzia sinatzeko Aitzbea Yarto Goiri Alkate Ordearengan eskuordetza.

Angel M^a Acillona Martinezek aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.

Esteban Txertudi Orkondonagoitiak arukeztutako obra lizentzia eskaera.

Rosa M^a Elorriaga Atekak aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.

Ludotekaren kontratuaren onarpena.

Udal Arkitektuaren zerbitzu kontratuaren onarpena.

Galder Acillona Garaik aurkeztutako segregazio lizentziaren eskaera.

Juan Ibinarriaga Urtizbereak aurkeztutako obra lizentziaeren eskaera.

Fakturen onarpena.

Juan Isidro Madariaga Bilbaok kontadoreari baja emateko aurkeztutako eskaera.

“Jainkotik Gorbeiara doan bidearen konponketa” lanen fakturaren onarpena.

Kultur eta euskera teknikariaren kontratuaren adjudikazioa.

Juan Jesus Ojinaga Esturok aurkeztutako salaketari buruz Arkitektuak egindako Informea

Jon Iñaki Etxebarria Alegriak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Joan Karla Barainka Guarrotxenak aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.

2018ko Aurrekontuaren likidazioaren onarpena.

Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergaren onarpena.

Fakturen onarpena.

2019ko Aurrekontuaren 1 zenbakidun kredituen aldaketaren espedientearen onarpena.

“Pantxitzurri Aisialdi Elkarte”ri emondako dirulaguntzaren onarpena.

“Makuleta alde” larreen alokairu kontratuaren onarpena.

“Txatola-Makuletalde” larreen alokairu kontratuaren onarpena.

Bertan behera utzitako animaliak jasotzeko “Txiki Eder” enpresarekin egindako kontratua.

Sollubeko 6 zenbakidun transmisio etxolaren alokairua.

Prantzesko Xabier Etxebarria Zamoranok aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Aitziber Ibinarriaga Delgado Alkate Ordearengan alkatetza funtzioak egiteko ordezkari Alkate Jaunaren faltan.

Edoitz Bilbao Aurrek aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Sollubeko 4 zenbakidun transmisio etxolaren alokairua.

Fakturen onarpena.

III.- -MUNGIALDEKO GORABIDE ELKARTEAK AURKEZTUTAKO DIRULAGUNTZA ESKARIA.

Mungialdeko Gorabide Elkarteak, 2019ko ekitaldian, elbarrituentzat jarduerak egiteko asmoz, dirulaguntza eskaria aurkeztu du. Udalbatzak, aho batez, seirehun (600) euroko dirulaguntza ematea erabaki du.

IV.- PANTXITXURRI AISIALDI ELKARTEAK AURKEZTUTAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Pantxitzurri Aisialdi Elkarteak 2019ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Horretarako, hiru mila hirurehun eta berrogeita hamar (3350,00) euroko aurrekontua aurkeztu du. Udalbatzak, aho batez, mila eta bostehun (1500,00) euroko dirulaguntza ematea erabaki du.

V.- LEKUKOARTU ELKARTEAK AURKEZTUTAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Lekukoartu Elkarteak 2019ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Horretarako, lau mila bederatzirehun eta berrogeita hamar (4950,00) euroko aurrekontua aurkeztu du. Udaltzarak, aho batez, bi mila (2000,00) euroko dirulaguntza emotea erabaki du.

VI.- EUSKERA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZAK.

Kiera Henderson De Madariagaren 2017-2018 ikasturteko euskera ikasteagatiko espedientea eta ziurtagiria ikusita, Udaltzarak, aho batez, berrehun eta hogeita lau (224) euroko dirulaguntza emotea erabaki du.

VII.-2019KO AURREKONTU OROKORRAREN ONARPENA ETA LANPOSTU ZERRENDA.

Udaltzarak, Alkate jaunaren Aitzbea Yarto Goiri, Aitziber Ibinarriaga Delgadoren aldeko botoekin eta Aintzane Enzunza Zorrozueta, Haizea Bengoetxea Andikoetxea eta Gartzten Agirregoitia Abaden abstentzioekin, honakoa adostu du :

Lehenengo.- 2019ko ekitaldirako Udaltzarak Aurrekontu Orokorra behin behingoz onartzea. Honela sailkatzen da kapituluak

Sarreren egoera

Kapituluak	Izena	Euroak
1	Zerga zuzenak	70.841,32
2	Zeharkako zergak	9.500,00
3	Tasa eta beste sarrera batzuk	86.393,00
4	Transferentzia arruntak	565.240,08
5	Ondarezko sarrerak	29.139,74
	Ohiko operazioak	761.114,14
7	Inbertsio errealean enajenazioa eta bestelakoak	2,00
	Kapital operazioak	2,00
GUZTIRA		761.116,14

Gastuen egoera

Kapituluak	Izena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	268.938,52
2	Ondaren arruntan erosketak eta zerbitzuak	279.050,00
4	Transferentzia arruntak	103.134,13
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	99.993,49
	Ohiko operazioak	751.116,14
6	Inbertsio errealak	10.000,00
	Kapital operazioak	10.000,00

GUZTIRA	761.116,14
----------------	------------

Bigarrena.- Espedienteari lotuta dagoen Aurrekontu Ejekuzioaren Udal Araua onartzea.

Hirugarrena.- Arrietako Udaleko lanpostu zerrenda onartzea.

Laugarrena.- Ediktu oholetan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, 15 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko Udalbatzaren aurrean.

Bostgarrena.- Akordio hau behin betikotzat joko da jendaurrean jarritako epean erreklamaziorik aurkeztu ezik.

Honako hau da lanpostu zerrenda:

ARRIETAKO LANPOSTU ZERRENDA

zk	Izena	F/L	Área	Taldea	Talde /esk/Sub	Titulazioa	H.E.	D.D.	Jardunaldia	Egoera	Homikuntza	D.O.	B.O.	Oharrak
----	-------	-----	------	--------	----------------	------------	------	------	-------------	--------	------------	------	------	---------

1.- Funtzionarioak

1	Idazkari kontuhartzailea	F	I/I	A1:A	FHE	Ltz.	4	amaitua	Z.J.	Homitua	K	25	16.769,62	% 20
1	Zerbitzu anitz. langilea	F	B	AP:D/C2	A.G.	Estola ziurtagiria	2	amaitua	J.O	Homitua	K	17	15.107,40	
1	Administrari laguntz.	F	I	C2:D	A.G.	FP 1 edo baliokidea	2	07/12/31	J.O	Hutsik	K	18	16.710,12	A.F.

2.- Lan itunpeko langileria

1	Administrari laguntz.	LF	I	C2:D		FP 1 edo baliokidea	2	07/12/31	J.O	Homitua	K	18	16.710,12	A.F.+%6
1	Administrari laguntz.	LT	I	C2:D		FP 1 edo baliokidea	2	07/12/31	J.O.	Homitua	K	17	15.116,08	A.R.
1	Zerbitzu anitz. langilea	LT	B	AP:E		Eskola ziurtagiria	1	07/12/31	J.O.	Homitua	K	10	9.679,88	A.R.
1	Garbitzailea	LT	B	AP:E		Eskola ziurtagiria	1	07/12/31	Z.J.	Homitua	K	9	8.678,46	A. R.

*** Oharrak**

A.F.- Funtzionarizatu
A. R.- Regularizatu.
A.A.- Amortizatu

VIII.- LANGILEEN 2019KO ORDAINSARIEN IGOERA

Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarreak, 24/2018 Errege Lege-Dekretua, 2019ko ordainsarien igoerari buruz zirkular informatiboa bidali du, langileen 2019ko ordainsarien igoera onartzeko.

Udalbatzak, aho batez, EUDELEk bidalitako gomendioa bere osotasunean onartzea erabaki du. Honako hau da edukia:

2019ko ekitaldirako ordainsarien igoera:

3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25.

3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori delta eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespina emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01tik aurrera gehituko litzateke.

Aipatutako 3. Bi artikulua azken paragrafoarekin lotuta, eta udal autonomiari kalterik eragin gabe, 2018ko ekitaldian aurrekontu superávit egoera izan duten Euskadiko udalei gomendatzen diegu, euren finantza eta aurrekontu aukeren neurrian, soldata masaren 0,3ko igoera gehigarria baimentzeko. Aipaturiko munta 3. Artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako lege-formulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal autonomiaren barruan. 2018ko ekitaldian aurrekontu superávit egoerarik bizi izan ez duten udaletarako, EUDELEn gomendioa da igoera hori soldata masaren %0,25ekoa izatea.

Halaber, onartutako akordioa martxan jartzeko, beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko Alkate Jaunari ahalmena emotea onartu da.

VIII.- BIDEEN INBENTARIOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Sendo S.L. enpresak egindako bideen inbentarioari hasierako onarpena ematea proposatu du Alkateak.

Udalbatzak, aho batez, zera onartu du:

Lehenengo.- Arrietako bideen inbentarioari hasierako onarpena ematea.

Bigarren.- Espedientea, jendaurrean jartzea bi (2) hilabeteko epean, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholetan iragarri, nahi duenak, ondo deritzozen alegazioak aurkeztu ahal izateko.

IX.- NORBERAK LEKARKEENA

Arrietako Andrazkoen proposamena.

Arrietako Andrazkoek, Estatuko Paktuan, genero indarkeria dela eta 2018ko ekitaldirako Toki entitateei emandako dirulaguntzaren alorrean, jarduera proposamen bat aurkeztu dute. Udalbatza, jakitun geratu da.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.